



Munduko Errugbi Kopa

Hogei talde, mele bakarra

Seigarren Munduko Errugbi Kopa abian jarriko da irailaren 7an, Parisen, eta hilabete eta erdi iraungo du –finala urriaren 20an jokatuko da–. Hogei herrialdek jardungo dute lehian, eta 48 partida jokatuko dira. Euskal Herritik hurbil bi lekutan izango da ikusteko aukera, Bordelen eta Tolosan (Okzitania). Hona jakin beharrekoak.

AURREKO BOST MUNDUKO KOPETAN hego hemisferioko taldeak gailendu dira, hots, Zeelanda Berria, Australia birritan eta Hegoafrika. 2003an irabazi zuen lehenbizikoz Europako talde batek: Ingalaterrak. Aurtengoa Frantzian jokatu da hein handi batean, eta, hain justu, herrialde horrek irabazi nahi du kosta ahala kosta kopa. Bertan ariko da, gainera, euskal jokalaririk bakarra: Imanol Harinordoki.

Kopa irabazteko hautagaiei gainbegiratura, Zeelanda Berria agertzen da indartsuen. Hori, halere, beti gertatu izan ohi da Munduko Kopa hasteko garaian, jokorik ikusgarriena eta indartsuena egiten baitu. Gero, ordea, beti falta izaten du zerbait finalera heltzeko. All Blacksek irabazi zuten azken Hiru Nazioen Torneoa –hego hemisferioko txapelketarik handiena–, soilik partida bat galduta. Udan jokaturiko test-partidetan ia dena irabazi du. Partida bakoitzaren hastapenean Hanka dantzarekin ezarri nahi izango dute errespetua, maorien borrokarako dantza baita.

Australiak birritan irabazi du Munduko Kopa. Iaz finala galdu zuen, eta kasik jokalaririk multzo bertsua darabil. Hiru Nazioen Torneoan Zeelanda Berria menderatu zuen, eta badirudi indarrean helduko dela. Hegoafrikak joko eraberritua erakutsi du Hiru Nazioen Torneoan, eta oso aintzat hartu beharreko taldea da. Aitzinean tinko dihardu, sutsu jokatu. Ingalaterrak lau urte eman ditu burua altxa ezinda, 2003ko Munduko Kopa irabazi ondoren. Otsailean jokaturiko Sei Nazioen Torneoan ere ahul jardun zuen. Badirudi Wilkinsonen jokatzaren ez duenean norabidea galduta aritzen dela, baina

KOLDO ALDUNTZIN

Wilko itzuli da eta itxaropentsuago dira ingelesak. Irlandak oso bolada gozoan dihardu azken sei urteotan, eta kasik ohiko jokalaririk multzo bertsuarekin zerbait handia egiteko asmo osoa du.

Gainerakoei dagokienean, Argentinak gora egin du, eta oso emaitza onak ukan ditu azkenaldian. Zoritzarrez, ordea, Martin Gaitanek ez du jokatzetik izango azken lagunarteko partidari bihotzeko arazoak izan zituelako. Miarritzeko jokalariek hutsunea garrantzitsua izango da. Samoak eta Fijik oso joko berezia egiten dute, sutsua eta norbanako jokoa oinarritua. Ezin da inoiz jakin noraino hel daitezkeen. Galesek nahikoa egingo luke final-laurdenetara heltzearekin.

Urtez urte

Munduko Kopa 1987an abiatu zen eta Aucklanden (Zeelanda Berria) jokatu zuten finala. Lehiatutako hamabost taldeen artean, Zeelanda Berriko David Kirk kapitainak jaso zuen lehen kopa, ekainaren 20an. Frantzia izan zen txapel-dunorde eta Gales Herrialdea sailkatu zen hirugarren. Hegoafrikak ez zuen jokatzetik izan arrazakeria kontuengatik. Bigarren Kopa 1991n Europan jokatu zen, eta finala Londresko Twickenham zelai mitikoan egin zen, non Australiak etxeko taldea mende hartu zuen. 1995koa Hegoafrikak jokatu zen, eta lehenbizikoz jardun zuten Springbooksek, arrazakeri arazoak gaindituta. Oraingoan 16 talde lehiatu ziren, eta Hegoafrika, Bolikosta eta Samoa gehitu ziren. Hegoafrikak irabazi zuen, Frantzia mende hartuta, eta Nelson Mandela lehendakariak eman zuen kopa. 1999an hogei talde aritu

ziren, eta Europan jokatu zen. Cardiffeko Milurte Estadio berrian jokatu zen finala, eta Australiak mendean hartu zuen Frantzia. Uruguai eta Espainia izan ziren berritasuna. Azken Munduko Kopa (2003) Australian jokatu zen hein handi batean, eta aurrenekoz Europako talde bat nagusitu zen: Ingalaterra. Berriro hogeitasei talde lehiatu ziren, eta Georgia aritu zen Espainiaren ordean.

Jokalari aipagarrienak

Serge Betsen (Frantzia) kontuan hartzekoa da aurtien lehiatuko diren jokalariek azpimarragarrienen artean. Kamerunen sortu zen orain dela 33 urte. Miarritzeko jokalaria da eta Frantziako Maila Nagusiko ligan dihardu, Top 14an. Hirugarren lerroa da, 1,82 metroko garai du eta 92 kilo. Frantziako Maila Nagusiko Liga hirutan irabazi du (2002, 2005 eta 2006). Horrez gain, Sei Nazioen Torneoako Gran Slama birritan irabazi du Frantziarekin (2002 eta 2004) eta klubaren arteko Europako Kopako finala jokatu zuen iaz. Bigarren aldiz jokatu du Munduko Kopa. Edozein taldek bere egin nahi lukeen jokalaririk horietakoa da, jokalaririk sutsua, bizia eta mugikorra; bere dohan nagusia defentsan du.

Richie Maccaw (Zeelanda Berria). All Blacks kapitaina da, eta hirugarren lerroan jokatu du. Jokaldi gehienetan hartzen du esku, eta plakatzaile aparta da. Dagoeneko lau aldiz irabazi du Hiru Nazioen Txapelketa eta Super 14a hirutan. All Blacksek 2005 eta 2006an Europan jokaturiko test-partida guztiak irabazi ditu.

Joe Rokocoko (Zeelanda Berria). Jonah Lomuren ordezkaria dela diote, baina aski desberdina da. Bost urte zituela heldu zen Zeelanda Berrira. Hegalean jokatu du eta 10 segundo eta 66 ehunenean egiten du 100 metroko lasterketa.

Daniel Carter (Zeelanda Berria). Munduko Kopa honetako interesgunea izango da. Joko zabaltzaile da, eta oso joko zehatza egiten du zangoz. Canterbury Crusaders taldean dihardu, eta ohikoa da Hiru Nazioen Torneoan eta Super 14an; bikain zabaltzen du jokoak.

Stephen Larkham (Australia). Joko zabaltzaile inteligentea da eta ohikoa da Hiru Nazioen Torneoan eta Super 14an. Pausatu egiten duen itxura ematen du, baina aingira baten modura mugitzen da.

George Gregan (Australia). Zambian sortu zen duela 35 urte, eta urtebete zuela emigratu zuen. Munduko Kopa honetako beteranoa da. Munduko errekorra du selekzio batean partida gehien jokatu (127). Munduko txapelduna izan zen 1999an eta txapeldunordea 2003koan. Hiru aldiz irabazi du Hiru Nazioen Torneoak.

Schalk Burger (Hegoafrika). Bere aita Springbooks ohia da. Schalkek 24 urte ditu eta

Euskal jokalariek

Imanol Hariñordoki izango da euskal jokalaririk bakarra seigarren Munduko Kopara honetan, eta Frantziarekin ariko da. Miarritzen dihardu, Frantziako Top 14 Liga Profesionalean. Garazin (Nafarroa Beherea) sortu zen, 27 urte ditu, 1,92 metroko garaiera eta 102 kilo. Aitzin-multzoan jokatu du, hirugarren lerroan. Euskara du ama hizkuntza, baina gaztetxoa zela utzi zion erabiltzeki. Garazin egin zituen bere lehen urteak errugbian, baina Pauera (Biarno) jo zuen. Talde horrekin Europako Challengea irabazi zuen, 2000. urtean. 2004an, Miarritzek fitxatu zuen. Lapurtarrarekin Frantziako Maila Nagusiko bi liga irabazi ditu (2005 eta 2006). Klubaren arteko Europako Kopako finala ere jokatu zuen 2006an eta bigarren Munduko Kopa jokatu du. Erabateko jokalaria da, eta bere lerroan Europako onenetakoa. Zelai osoan aritzen da eta bere ahalmenik esanguratsua alboko sakean du.

Euskal jokalaririk gehiago ere izan dira aurrekoetan: 1997an, Partridge Lagisquet, Serge Blanco, Paxkal Ondarts eta Jean Condom, Frantziarekin; 1991n, Serge Blanco, Partridge Lagisquet, Paxkal Ondarts eta Gregorio Laskube, Frantziarekin; 1995ean, Jean-Michel Gonzalez, Frantziarekin; 1999an, Francisco Puertas eta Aitor Etxebarria, Espainiarekin; eta 2003an, Pepito Elhorga eta Imanol Hariñordoki bera.

plakatzaile sutsua eta arriskutsua da. Horregatik, txartel hori eta gorri dezente jasotzen du. Energia handia erabiltzen du kontrarioaren defentsa hausteko. 2004an 21 urte azpiko Munduko Kopa irabazi zuen eta Kopako jokalaririk onena hautatu zuten. Iaz lesio larria izan zuen Eskoziaren aurka, baina ongi osatu da. Stormes taldearekin jokatu du Super 14an.

Bryan Habana (Hegoafrika). Hiru laurdenetako lerroko hegala da, tximista bezalakoa eta bihurria jokoan. Zazpiko –zazpi jokalaririk taldeen– errugbian aritua da eta jokalaririk onena hautatu zuten jokalaririk beltzen artean, 2005ean.

Jonny Wilkinson (Ingalaterra). 27 urte ditu eta joko zabaltzaile da. Newcastleko jokatu du eta Ingalaterra selekziooko barometroa da; berak nola jokatu taldeak hala jokatu du. Orain dela lau urteko Munduko Kopa irabazi zuen, baina geroztik ezin izan du sasoi-jardun, hainbat lesiorengatik. Teknika aparta du zangoko jokoan, entrenamenduetan. Bikain zabaltzen du baloia eta Zeelanda Berriko Carterren antza du joko eran.

Brian O'Driscoll (Irlanda). Irlandako kapitain esanguratsua da. Hiru laurdenetako lerroko erdia da. Ez du jokatzetik izango Kopako lehen partida, abuztuaren 16an kolpe bat hartu zueneko sudurrean, Baionaren aurka. Jokalaririk osoa da eta biko aparta osatzen du D'Arcyarekin. Oso jokalaririk indartsua eta sutsua da.

Paul O'Connell (Irlanda). Igerilari eta golf-lari ohia. Hirugarren lerroan jokatu du, 1,98 metroko garaia du eta 116 kilo; oso teknikoa da. Limerickeko Munster probintzian jokatu du.

Shane Williams (Gales Herrialdea). 2005eko Sei Nazioen Torneoako Gran Slama irabazi zuen eta 2003ko Munduko Kopan final-laurdenak jokatu zituen Zeelanda Berriren aurka, hegaletako jokalariren artean onenetakoa izan zen. 30 urterekin, 1,70 metroko garaiera eta 77 kilo ditu. Erritmo aldaketak eta sigi-saga ikusgarriak egiten ditu. ■



Imanol Hariñordoki.

datutan

Multzo bakoitzeko taldeei buruzko xehetasunak:

Ameriketako Estatu Batuak (1975):
Munduko saikapeneko postua: 14.
Entrenatzailea: Peter Thorburn.
Lorpenak Munduko Kopan: lau aldiz aritu da. Ez da inoiz final-laurdenetara saikatu.
Jokatuak: 13 partida (2 irabazi, 11 galdu).

Hegoafrika (1889):
Munduko saikapeneko postua: 3.
Entrenatzailea: Jake White.
Lorpenak: hiru aldiz aritu da. Txapelduna 1995ean, finalerdietara heldu zen 1999an eta final-laurdenetara 2003an.
Jokatuak: 17 partida (14 irabazi, 3 galdu).

Ingalaterra (1871):
Munduko saikapeneko postua: 6.
Entrenatzailea: Brian Ashton.
Lorpenak: bost aldiz jardun du. Txapelduna izan zen 2003an, finalista 1991n, finalerdietara heldu zen 1995ean eta final-laurdenetara 1987 eta 1999an.
Jokatuak: 28 partida (20 irabazi, 8 galdu).

Samoa (1924):
Munduko saikapeneko postua: 10.
Entrenatzailea: John Boe.
Lorpenak: lau aldiz jardun du. Final-laurdenetara heldu zen 1991 eta 1995ean.
Jokatuak: 16 partida (8 irabazi, 8 galdu).

Tonga (1923):
Munduko saikapeneko postua: 17.
Entrenatzailea: Adam Leach.
Lorpenak: lau aldiz jardun du. Ez da inoiz saikatu final-laurdenetara.
Jokatuak: 13 partida (2 irabazi, 11 galdu).

Australia (1949):
Munduko saikapeneko postua: 4.
Entrenatzailea: John Connolly.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Txapelduna izan zen 1991 eta 1999an, finala jokatu zuen 2003an, finalerdietara heldu zen 1987an eta final-laurdenetara heldu zen 1995ean.
Jokatuak: 29 partida (24 irabazi, 5 galdu).

Fiji (1913):
Munduko saikapeneko postua: 11.
Entrenatzailea: Livi Tabua.
Lorpenak: lau aldiz aritu da. Final-laurdenetara heldu zen 1987an.
Jokatuak: 11 partida (3 irabazi, 8 galdu).

Gales Herria (1881):
Munduko saikapeneko postua: 9.
Entrenatzailea: Gareth Jenkins.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Finalerdietara heldu zen 1987an eta final-laurdenetara 1999 eta 2003an.
Jokatuak: 21 partida (12 irabazi, 9 galdu).

Japonia (1926):
Munduko saikapeneko postua: 18.
Entrenatzailea: John Kirwan.
Lorpenak: bi aldiz aritu da. Ez da inoiz saikatu final-laurdenetarako.
Jokatuak: 16 partida (1 irabazi, 15 galdu).

Kanada (1965):
Munduko saikapeneko postua: 13.
Entrenatzailea: Ric Suggitt.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Final-laurdenetara heldu zen 1991n.
Jokatuak: 17 partida (6 irabazi, 11 galdu).

Errumania (1931):
Munduko saikapeneko postua: 15.
Entrenatzailea: Daniel Santamans eta Robert Antonin.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Ez da inoiz saikatu final-laurdenetarako.
Jokatuak: 16 partida (4 irabazi, 12 galdu).

Eskozia (1873):
Munduko saikapeneko postua: 7.
Entrenatzailea: Frank Hadden.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Finalerdietara heldu zen 1991n eta final-laurdenetara 1987, 1995, 1999 eta 2003an.
Jokatuak: 24 partida (14 irabazi, 9 galdu eta 1 berdindu).

Italia (1928):
Munduko saikapeneko postua: 12.
Entrenatzailea: Pierre Berbizier.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Ez da inoiz saikatu final-laurdenetarako.
Jokatuak: 16 partida (5 irabazi, 11 galdu).

Portugal (1926):
Munduko saikapeneko postua: 21.
Entrenatzailea: Tomaz Morais.
Lorpenak: lehenengoz ariko da.
Jokatuak: bat ere ez.

Zeelanda Berria (1892):
Munduko saikapeneko postua: 1.
Entrenatzailea: Graham Henry.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Txapelduna izan zen 1987an, finalista 1995ean eta finalerdietara heldu zen 1991, 1999 eta 2003an.
Jokatuak: 31 partida (26 irabazi, 5 galdu).

Argentina (1899):
Munduko saikapeneko postua: 8.
Entrenatzailea: Marcelo Loffreda.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Final-laurdenetarako saikatu zen 1999an.
Jokatuak: 18 partida (6 irabazi, 12 galdu).

Frantzia (1919):
Munduko saikapeneko postua: 2.
Entrenatzailea: Bernard Laporte.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Finalera heldu zen 1987 eta 1999an, 3. saikatu zen 1991 eta 1995ean, 4. izan zen 2003an.
Jokatuak: 29 partida.

Georgia (1961):
Munduko saikapeneko postua: 17.
Entrenatzailea: Claude Saurel.
Lorpenak: behin aritu da, eta ez zen saikatu final-laurdenetarako.
Jokatuak: 4 partida (0 irabazi, 4 galdu).

Irlanda (1874):
Munduko saikapeneko postua: 5.
Entrenatzailea: Eddie O'Sullivan.
Lorpenak: bost aldiz aritu da. Lau aldiz saikatu da final-laurdenetarako.
Jokatuak: 21 partida (11 irabazi, 10 galdu).

Namibia (1990):
Munduko saikapeneko postua: 23.
Entrenatzailea: Johan Venter.
Lorpenak: bi aldiz aritu da, eta ez da saikatu final-laurdenetarako.
Jokatuak: 7 partida (0 irabazi, 7 galdu).

Zelaiak:

Bordele (Frantzia).
Izena: Chaban-Delmas
Ikusle kopurua: 73.440

Cardiff (Gales Herria).
Izena: Milurte Estadioa
Ikusle kopurua: 73.350

Edinburgo (Eskozia).
Izena: Murrayfield
Ikusle kopurua: 68.000

Lens (Frantzia).
Izena: Felix Bollaert
Ikusle kopurua: 41.400

Lyon (Frantzia).
Izena: Gerland
Ikusle kopurua: 41.100

Marsella (Frantzia).
Izena: Belodromo Estadioa
Ikusle kopurua: 59.500

Montpellier (Frantzia).
Izena: Mosson Estadioa
Ikusle kopurua: 33.650

Nantes (Frantzia).
Izena: Beaujoire estadioa
Ikusle kopurua: 38.100

Paris (Frantzia).
Izena: Printzeen Parkea
Ikusle kopurua: 47.870

Paris. Saint-Denis (Frantzia).
Izena: Frantzia Estadioa
Ikusle kopurua: 80.000

Saint-Etienne (Frantzia).
Izena: Geoffroy Guichard Estadioa
Ikusle kopurua: 35.650

Tolosa (Okzitania).
Izena: Udal Zelaia
Ikusle kopurua: 35.500

Palmaresa

Urtea	Txapelduna	Txapeldunordea	Emitza	Lekua
1987	Zeelanda Berria	Frantzia	29-9	Auckland (Z.B.)
1991	Australia	Ingalaterra	12-6	Londres (Ingalaterra)
1995	Hegoafrika	Frantzia	15-12	Johanesburgo (Heg.)
1999	Australia	Frantzia	35-12	Cardiff (Gales)
2003	Ingalaterra	Australia	20-17	Sydney (Australia)

Bitxikeriak

Munduko Kopan aritutako jokalaririk garaienak:
Derwyn Jones (Gales Herrialdea), Martin Bayfield (Ingalaterra) eta Richard West (Ingalaterra): 2,08 metro.

Munduko Kopan aritutako jokalaririk baxuena: Masami Horikoshi (Japonia): 1,58 metro.

Jokalaririk pisutsuena: Census Johnston (Samoa): 130 kilo. Aurten ariko da, eta orain dela bi sasoi Miarrizen aritu zen jokatzeko.